

JESUSEZ DAKIGUNA

Zein sekretu ezkututzen du Nazareteko Jesusek historian zehar milioika lagun liluratzeko? Nor izan zen mendebaldean eta munduko beste hainbat lekutan erlijioa, kultura, bizikidetasuna eta artean arrasto hain erabakigarria utzi zuen pertsona hori? Seguru adko, inork ez du ahalmen hain handirik izan bihotzen gainean; inork ez ditu berak bezala adierazi gizakiaren kezka eta galderak; inork ez du hainbeste itxaropen piztu; inor ez dute hainbeste maitatu eta gorrotatu... Zer dela-eta ez dugu ahaztu? Zergatik, gaur egun ere, ideologia eta erlijioek krisi sakonean daudenean, daude bizirik Jesus eta bere mezua, milioika lagunen fedea sustatuz? Zergatik erakartzen eta interpelatzen gaitu? ¹

Biografia laburra

Augusto enperadorearen erregetzan jaio zen, Kristo aurreko (K.A.) 4. urtean gertatu zen Herodes Handiaren heriotzaren aurretik. Seguru asko, K.A.ko 6. eta 4. urteen artean. Nazareten hazi zen eta Jose eta Maria izan ziren aita eta ama.

Jesusek aramearra, Galilean hitz egiten zen dialektoa, ikasi zuen gurasoengandik. Garaiko ikasien hizkuntza zen eta tenpluko liturgian eta sinagogetan erabiltzen zuten hebrearra ezagutzen zuen; grekoz ere moldatzen zen, antza, baina latina ezagutu ere ez zuen egiten.

Bere bizitzaren zatirik handiena Nazareten eman zuen, Galileako inguru menditsuan, merkataritza-bideetatik aldentuta zegoen herrian. Jarduera profetikoari ekin arte ez zituen garaiko hiri nagusiak ezagutu.

Baserritar pentsaera zuen. Lan-maisu ogibidea ikasi zuen aitarengandik. Tradizioaren arabera, Jose arotza zen, baina, hori baino gehiago, lan-maisua izango zela ematen du, hau da, eraikuntzan edozein lan egiteko gauza zen norbaiti.

Erabateko bizimodu aldaketa

Joan Bataiatzaileak Jordan ibaiaren inguruko basamortu-inguruan garatzen ziharduen egitasmoaren berri izan zuen Jesusek. Nazaretetik atera, Joanen elkarteetan egon zen denboraldi batez eta ez zen senideengana itzuli. Hala ere, ez zuen Joani lotuta iraun. Bataiatzailearen atxiloketaren ostean, Jesusek aurrera-pausua eman, eta jarduera profetikoari ekiten dio. Eta Joanez bihotz-berritu beharra hots egiten zuen bitartean, Jesusek lagun hurkoaren aldeko maitasuna eta barkamena ditu oinarri bere predikuan.

Familiak ez zuen ondo ulertu bere bizimodua. Erotuta zegoela ere pentsatu zuten eta bizimodu harekin, ohorea kentzen ziela. Jesus, Nazaret utzi, eta Kafarnaumen bizitzen hasten da. Apurka-apurka, senide eta lagun batzuek ere bat egingo dute bere egitasmoarekin eta Maria bere amak gurutzeraino lagun egin zion.

Jesusek gurasoengandik jaso zuen fede judua eta ez zen bere asmoa judaismoarekin lokarriak haustea eta, are gutxiago, erlijio berria sortzea. Jesusek dei egin zuen, Jainkoaren erreinuaren eraikuntzan eraginkortasunez laguntzera.

¹ *Etorri eta ikusi*" 2. mailarako gida pedagogikoko 4. gaitik hartuta. Katekesirako Iruña eta Tuter, Bilbao, Donostia eta Gasteizko Elizbarrutietako Ordezkaritza eta Idazkaritzek argitaratu zuten 2011n.



Jarduera ibiltaria

K.O.ko 27-28 urtean, jarduera profetikoari ekin zion. Hasieran, Palestinako urrineko lekuetan jardun zuen. Apurka-apurka, Jesusek urratsak eman eta arriskuak hartzen ditu, Jerusalemera joatea erabaki arte. Han, gurutzean josi zuten, seguruenik K.O.ko 30. urteko apirilaren 30ean..

Ez da erraza Jesusen ibilbidea berregitea. Baliteke, Joanen elkarteak utzi ondoren, Galileako lakura joatea eta bertan bere jarraitzaileen taldea sortzea. Palestinako landa-eremuetan ibili zen denboraldi batez. Kafarnaum bihurtu zen bere jardueraren erdigune. Kontua da, bere jarduera profetikoaren hasieran ez zela inguruko hiri nagusietara hurbildu. Jarraitzaileen taldea zeraman ondoan eta batik bat, gaixoak sendatzen eta lagun hurkoaren aldeko maitasunean eta barkamenean oinarritutako Jainkoaren Erreinua iragartzen aritu zen. Ospe handia lortu zuen eta jende-andanak jarraitu zion.

Jesus profeta

Jainkoaren Erreinuaren iragarpena da Jesusen jarduera profetikoaren oinarria. Jesus fede juduan hezi zuten, baina bere hitzak bizi izan zuen Jainkoarekiko hartu-eman pertsonal sakonetik sortu ziren. Jainkoaz izan zuen esperientzia aparta izan zen, inoiz inork izan gabekoa, tenplu eta sinagogetan hots egiten zen jainko epaile eta zorrotzaren parean, Jesusek galdutako alaba eta semeen bila ari zen, Berarengana bihurtzen ziren guztiak ezer aurpegiratu gabe onartzen zituen Jainko aita-ama hots egiten zuen, mendi eta kaleetan. Jesusek Jainko errukitsua aurkeztu zuen eta etsaiak ere barkatzeko eskatu zien bere entzuleei.

Bere jarduera profetikoan, jende-andana mugitu zuen Jesusek. Jendea erakartzeko gaitasun honen eraginez, erne eta horri nola erantzun pentsatuz zeuden agiteariak. Saduzear zein farisearren kritika zorrotza izan zen, gizarteko baztertuekin lotzen zutelako eta erlijio juduaren arau eta ohikuneak behin eta berriro hausten zituela aurpegiatzen ziotelako. Zelotek erromatar inbaditzaileen aurkako gerrara deituko zituen Mesias espero zuten eta denak –baita etsaiak ere- barkatzea ezinbestekoa zela hots egiten zuen gizona aurkitu zuten aurrez aurre.

Jesus sendatzailea

Zalantzarik gabe, Jesus sendatzen ere aritu zen eta bere garaiko jendeak mirarigiletzat zuen. Gaixotasunaren eraginez, jendea gizartetik kanpo geratzen zen, beren izenak ezabatu egiten zituzten tenplutik. Gaixotasunaren eraginez, pertsonak familiarik aldentzen ziren, lohitzat jotzen zituztelako. Gaixotzea Jainkoaren zigortzat jotzen zen. Norbaitek gaixoa ukitzen bazuen, lohituta geratzen zen. Jesusen garaian, gaixoak eskale, gizarteko baztertu eta behartsuen bihurtzen ziren. Jesusek sendatu egiten ditu gaixoak eta gizarteko lehen lerrora itzularazten; lohitasunaren tabuak hautsi eta gaixoen bazterketa salatzen du, hori ez baita Jainkoaren borondatea.

Jesusek “gainditu” egiten ditu legeak

Jesusek bere garaiko arau eta legeak hautsi egin zituen. Legeak gizakien esanetara

daude eta ez alderantziz. Hainbat arau hautsi zuen: ohikuneetako garbitasunari zegozkienak, larunbatari lotutako arauak... Eskalez, gaixoz, zerga-biltzailez eta bekatariz inguratuta bizi izan zen. Emakumeak berdintzat hartu eta taldean sartu zituen. Haurrak ere onartu zituen. Emakume eta hurrekiko hartu-eman hau ez da ustekabekoa, batzuk zein besteak, jabegotzat zituzten-eta. Beste behin ere, bere jarrerarekin, Jesusek gizon eta emakume guztien duintasuna aldarrikatzen du.

Jesus hil egiten dute... eta Jainkoak piztu egiten du

Hitz egiteko eta bizitzeko erak, Jainkoa eta bere Erreinua hots egiteko erak, egungoko gatazka ekarri zion herriko agintari erlijiosoekin. Ondorioz, heriotzara kondenatu zuten. Juduek ezin zutenez heriotza-zigorra gauzatu, apaizek Pilatoren (erromatar inperioko ordezkariaren) esku uzten dute eta honek gurutzean hiltzera kondenatzen du. Ezarritako ordenaren ("pax romana") aurkako delituengatik kondetzen zuten erromatarra ez zen norbait gurutzean hiltzera.

Eta dena amaitu zela zirudienean, Jesusen auzia piztu egin zen... Jainkoak Jesus hildakoen artetik piztu zueneko ustearen eta Espirituari egotzitako gar espiritualaren eraginez mugimendu erlijioso berria sortu zen. Jende askok bat egin zuen horrekin. Jesus hil eta hilabete gutxira Jerusalem kristau elkarte sortu zela egiaztatuta dago.

Uste sendo hau gaur egunera arte heldu da eta bi mila urtez askotariko kulturetako milioika gizakiren bizitza zentzuz bete du.



Sinestea, gaur... arrazoizkoa ote da?

“ARRAZOIZKO AUKERA”²

Ignacio Sotelok, bere agnostizismoaren arrazoien inguruan solasena jardunez, *“bizitza, nahiz eta biziki saiatu, aldez aurretik galduta dugun borroka”* dela aitortzen du eta gizakiok *“ezerezean desagertuko garela eta borreroek nagusi izaten jarraituko dutela”*. Benetan, ez nator uste sendo hauekin eta ezin dira egiaztatu ere, bakarrik sinetsi. Aldez aurretik bizitzaren aurrean hartutako arrazoizko aukeraren emaitza dira. Hogeigarren mendeak eta bere ankerkeriak zabalik utzi zuten auzi erlijioso eta teologikoari ematen dion erantzuna da: Unibertsoa barne hartzen duen misterioa aurkako ala abegitsu da gizakiarentzat? Azkenaldian Errealitatea eratzen, oinarritzen eta barne hartzen duena, gizakien adiskide ala etsai da? Gure azken erreferentea biziaren adiskide den Jainkoa da ala suntsiketa eta heriotzaren jainko etsaia?

Galdera hauen zentzudun erantzuna historiaren azkenean baino ezingo da jakin. Bitartean, ezinbestekoa da behin-behineko bat aukeratzea. Gero, erabateko zentzuaren aldeko erabaki maitekorretik sortzen denaren alde nago, M. Serrahimak sakontasunez idatzi duenaren haritik: *“Arrazoi eta Jatorri misteriotsuaren onarpena arrazoizkoagoa da niretzat eta arrazoi eta jatorriaren ausentzia misteriotsua onartzeak, edo arrazoi eta jatorri ororen ezjakintasun ezinbesteko eta gaindiezinaren baieztapen misteriotsuak baino gehiago asetzen nau... Nahiago ditut Argiaren Misterioak, Ilunpearen Misterioak baino. Beraz, arrazoiak berak, eta ez bakarrik fedeak, narama, Errealitatearen oinarriari buruz erabakitzeko unean, Existentzia absolutu misteriotsu baina positiboa onartzera eta huts kaotikoa baztertzeraz, berau ere, azken batean, misteriotsua litzatekeelarik”*.

Arrazoizko aukerarik gabe, Jainkoarekin bat egitera garamatzaten ateak erabat itxita egongo lirateke”.

Eta guk..., zer dugu nahiago, Argiaren Misterioa ala Ilunpeena?

² Ik. F. Javier Vitoria *¿Dónde se encuentra Dios?* Iglesia Viva, 223. zenb., 2005. 3-54 or.

